

## Ez naiz arrazista, baina...

**Maider IANTZI  
GOIENETXE**

**M**arroia itsusia dela barneratu duen hiru urteko haurra. Barraren gibeletik eskuaz eta irri zabalez agur egin arren, bezeroek ikusten ez duten zerbitzaria. Ba al da ikusezinarena baino bakardade handiagorik? Nahiago dute ilara egin serio demonio ageri den bertze zerbitzariaren aitzinean.

Seme-alaba ttikiak jaioterrian utzita ozeanoa gurutzatu eta Europako ume-txo bat besoetan eramaten duen emakumearen mina. Gure herriko adinekoen bat zainduko du bertzela, ikasketaz arkitektoa den arren.

Irakasleak zaintzailatzat hartu du bileran, ez gurasotzat, alabarekin batera bere aurrean eseri denean. Eta irakasle gelan,

“nire ijitoa” deitzen dio andereñoak lau urteko Cristiani, Cristian izeneko ikasle bakarra bada ere. Cristian erranda denek ulertuko lukete nori buruz ari den.

Berarekin diruagatik eta paperengatik ezkondu dela aditu behar du behin eta berriz. Gainera, sabelean hazten ari zaion haurra nongoa izanen ote den galderak atximur samin bat eragiten dio.

Paperik gabe ez du ez lanik ez etxebizitzarik, eta etxerik eta lanik gabe ez du paperik lortzerik.

Anitz zaindu behar du itxura, orrazke-ra, jantziak, bertzela ere kontrol guztietan gelditzen baitu poliziak.

Euskara da bere ama hizkuntza, gaztelaniaz ez da hain ongi moldatzen, eta hala ere, gaztelaniaz saiatzen da patioan.

Hainbertze aditu dugu “gu eta bertzeak” banaketa hori. Baina nor gara gu eta nor dira bertzeak? Non dago marra? Berriz jaiotzeko aukera izanen bazenu, zein herri aukeratuko zenuke sortzeko? Zer ikusiko zenuke lehenengo? Zer azal kolore eta etnia hautatuko zenuke? Zein egoera sozioekonomiko?

Miresmenaren eta errukiaren arteko balantza horretan mugitzen da kulpaa ere. Zer eragiten dizu erruak? Eta zer pizten dizute harrotasunak eta itxaropenak? Zer duintasunak? Gogoetatu duzu inoiz zer misio egitera etorri zaren mundu honetara?

Ez miresmenik ez errukirik ez kulparik; erranen nuke ez dagoela parean jartzea bezain gauza ederrik. •

## Satira epaitu

**Xabier Mikel  
ERREKONDO**

**H**eldu den asteazkenean epaituko dituzte Raimundo el Canastero Lizarrako musika taldeko kideak herriko jaie-tan txosnen kokapenaren aldaketarekin sortu zen ika-mikaren inguruan Marta Ruiz de Alda UPNko alkateari joan den uztaillean egindako abestiagatik. “Beef d’Alba” du izena, eta egun gutxira burututako urgentziazko plenoak udalari eta alkateari zuzendutako irainak eta mehatxuak salatu zituen, UPN, PP eta PSNko zinegotzien babesarekin.

Dozena inguru taldekide dira, eta atxilotu zituzten unetik bertatik abestian umorea eta satira biltzeko adierazpen askatasuna aldarrikatu zuten. Abestian

esandako batzuk ez dira goxoak: “Perra amargada en la poltrona”, “vamos a quemar el ayuntamiento”, “deshazte de ella, mátala”. Kontestutik atera, letraz letra hartu, eta errealtatea bortxatzeko tentazioa izaten dute izendatuek, baina abeslariak gobernatuen umorea eta satira erabiltzeko eskubide eta ohitura historikoan kokatzen dute kantua.

Nonbait, akusazioak epaiketarako nahikoa oinarri ezin bilduta, azkenik tituluan aurkitu dute aitzakia, hizkuntzak nahieran erabilita. “Beef d’Alba”. “Beef” deitu izana alkatearen ezaugarri fisikoak mespretxatzea dela argudiatu dute, ingelesezko esanahi literala baliatuta, hots, “behi haragia” litzatekeena. Taldeak kon-

trara dio *beef* termino bat dela protesta eta kritika adierazteko, eta #BeefEz-DaHaragia hashtaga zabaldu dute sarean. Kasua barregarri, azkenerako.

Nonbait norbait presaka dabil kontu honekin. Denborak aurrera egin ahala abestiak inolako ondoriorik eragiten ez duela ikusirik, “kasua” ezdeus bihurtzeko kezkak jota, antza.

Lizarrako herritik dator notizia, musika taldea dutela epai bidean jarria, kontat(tu)tzeroa noa nire iritzia, alegartzeko tristea den injustizia.

Betikik eta betiko, gora gobernatuen arma umorea eta satira!

[[https://youtu.be/UgiHL\\_NG5yY?si=B1QBR6Dw2ugRlrht](https://youtu.be/UgiHL_NG5yY?si=B1QBR6Dw2ugRlrht)]. •